

Europa mailako kanpaina “Herrien arteko Besarkada”

i) Arteako akordioak 2018-Aza-10a

Azaroaren 10 eta 11n Artean (Euskal herria) bildu ginen Espainiako Estatuko, Italiako, Greziako, Alemaniako eta Ipar Euskal Herriko haninbat kolektibotako 100 lagun.

Topaketa Ongi Etorri Errefuxiatuak eta Caravana Abriendo Fronteras erakundeek deituta egin da. Europa mailako ekimen bat abiaraztea erabaki dugu datozen Europar Parlamentuko hauteskundeen aurrean Europar Batasunaren eta berau osatzen duten gobernuen migrazio-politikak salatzeko.

Erabaki da lurralde bakoitza autonomia dela baina, hala ere, gutxieneko hauek adostu genituen denon artean:

1. Ekintza 2019ko maiatzaren 5ean egingo da, eguerdiko 12etan, Europako herri eta hirietako plaza, udaletxe eta abarren aurrean. Lurralde bakoitzean erabakiko da non, bakoitzaren dinamiken arabera.
2. Goiburua: M5 HERRIEN ARTEKO BESARKADA Alabaina, Alemaniakoek eta Greziakoek zail ikusten zuten goiburu hori hitzez-hitz itzultzea hainbat arrazoiengatik. Beraz, goiburuarekin malgu jokatzera proposatzen dugu, herrialde bakoitzaren errealitatearen arabera.
3. SINBOLOGIA: Artean grabatu zen eszenaratzea. Laster edukiko dugu bideoa, lurralde bakoitzak nahieran erabili eta beste ekintza batzuekin osatu ahal izango duena.
4. KANTA: “O Bela Chao” eta Tiken Jah Fakoly-ren “Ouvrez les frontières” kantak erabiltzea erabaki zen. Baita banaketa-zerrenda bat egitea ere kanta gehiagorekin, han-hemenka erabili ahal izateko.
5. Erabaki zen ORAIN BERTAN hasia kanpainarako ekintzekin eta ekintzok indartzea aurreko asteetan: Aurkezpenak, hitzaldiak, baraualdiak, itxialdiak, kanpaldiak, zinema...
6. Euskal Herriko batzordearen kontaktua: eh@5M5.eu Estatuko batzordearen kontaktua: es@5M5.eu Nazioarteko batzordearen kontaktua: intl@5M5.eu
7. Kanpainaren aurkezpen “ofiziala” abenduaren 20an egingo da lurralde bakoitzean, Europako barne ministroek migrazioari buruzko gaiez aritzeko bilera egingo duten egunean.
8. Bi dokumentu doaz atxikita:

- Dokumentu labur bat, "ARTEAko KONPROMISOAK" izenekoa. Bertan daude laburbildurik erreibindikazioak/exijentziak.
- ADIERAZPEN luzegoa bat. Bertan arrazoitzen dira kanpainaren oinarritzko edukiak. Adierazpena dokumentu irekia da, lurralde, herrialde, mugimendu sozial edo deba delako bakoitzak bere atxikipen-adierazpena eta bere deialdia egin ahal izango baitu, kanpainaren indar-ideiak bere eginez.

M5



ii) Arteako Konpromisoak

Gizatasunaren alde, migratzaileen alde, Europan harrera egin dakien eta libre ibili daitezten, eta neofaxismoaren kontra

Salatzen dugu Europako krisi sozial eta ekonomikoaren errua migrazioari botatzen dion eta krisi horretan elite europarrek duten erantzukizuna ezkutarazten duen diskurtsoaren manipulazioa eta gezurra.

Salatzen dugu EBk, europar gobernu guztiek eta enpresa trasnazionalek migrazio-exodoan duten erantzukizuna: heriotzak, tratu ankerra, esklabotza, deportazioak, zapalkuntza, diskriminazioa eta indarkeria, zeinak ankekeria bereziz burutzen diren emakumeen, adingabeen eta LGTBI pertsonen aurka Europarako bidaian eta Europan bertan.

Exijitzen dugu zorrotz bete dadila Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, migratzaile guztiek askatasunez mugitzeko aukera izan dezatela eta Europan bizi garen gainerakoek eskubide berberak izan ditzatela.

Exijitzen dugu bertan behera gelditu daitezela mugen externalizazioa, europar armagintza eta arma-salmenta, baliabideen harrapaketa eta lurren lapurreta, eta errotik aldatu daitezela egundo politika ekonomiko eta komertzialak.

Exijitzen dugu giza eskubideekin bat datozen migrazio-politikak egin daitezela, bertan behera gelditu daitezela kanporaketak eta pasabide seguruak ezar daitezela beren herrialdeetatik migratu nahi dutenentzat.

Planteatzen dugu badela ordua ez soilik elkartasuna adierazten duten pertsona eta erakunde europar eta migratzaileen kriminalizazio hori geldiarazteko, baina baita pertsona eta erakunde horiek babesteko eta defendatzen dituzten baloreak goresteko.

Konpromisoa hartzen dugu egun eskuin muturreko indar neofaxista eta autoritarioek eta haien jarraitzaileek Europan sustatzen eta ezartzen dituzten gorroto eta bazterkeriazko politikak errefustazeko.

Konpromisoa hartzen dugu gizatasuna eta elkartasuna Europako bizimoduraren balore gisa defendatzeko.

Konpromisoa hartzen dugu gogorarazteko denok izan garela beti migratzaileak: gure arbasoek, gure gurasoek migrazioen, erbestearen eta berdintasunik ezaren mina eta miseria jasan zituzten -eta seguraski gure seme-alabek eta ondorengoek ere hala jasango dituzte-.

Horregatik guztiagatik, **konpromisoa hartzen dugu** egun egoera hori pairatzen duten pertsonenganako elkartasun aktiboa adierazteko eta pertsona horiek osotara gure gizarteko partaide kotsideratzeko.

iii) Arteako adierazpena

Gizatasunaren alde, migratzaileen alde, Europan harrera egin dakien eta libre ibili daitezten, eta neofaxismoaren kontra

Gaur den egunean gero eta indar handiagoa ari dira hartzen Europan eskuin muturreko indarrak eta indar neofaxistak jende-multzo handien artean, migratzaile eta errefuxiatuenganako gorrotoa sustatuz, haiei egotziz gure gizarteetako gaitzen errua: langabezia, soldata baxuak, krisi sozial eta ekonomikoa, delinkuentziak eta matxismoak gora egitea.

Eta, horrenbestez, muturreko indar horiek, eta indar horien iritzi batzuk bere egiten dituzten zentor-ezkerreko eta eskuineko sektore batzuekin batera, areagotu egiten dituzte jadanik indarrean dauden migrazio-politika bidegabeak, Hala nola diren kanporaketa masiboak, mugak ixten dituzte eta heriotzera bultzatzen dituzte milaka migratzaile Mediterarrenoko urtean, Afrikako desertuetan eta izenik gabeko beste leku batzuetan, oinarrizko giza eskubideak, bizia eta migratzeko eskubidea ukatzen dizkietelarik.

Egoera honen aurrean, adierazten dugu:

1. Estrategia neoliberalen garapenak sortutako krisi honen arduradunak Europa gobernatzen duten eliteak dira eta ez migratzaile eta errefuxiatuak. Elite horien politikek langabezia eta prekarietatea sortzen dute, oinarrizko zerbitzu publikoak desagerrarazten dituzte eta murrizketa sozialak eragiten dituzte, errua immigrazioari botatzen diote eta sentimendu xenofoboak eta pobreen arteko gerra sustatzen dituzte botoak irabazteko eta gobernatzen gaituztenen erantzukizuna ezkutarazteko.

Positiboa da, alabaina, migratzaile eta errefuxiatuak Europara etortzea. Aberastu egiten dituzte gure gizarteak, gure bizimoduak eta besteenganako ditugun jokabideak, indartu egiten dute desberdinen arteko bizikidetzak, eta bultzada ematen diete elkartasun eta berdintasun prozesuei.

Horregatik salatzen dugu Europako krisi sozial eta ekonomikoaren errua migrazioari botatzen dion eta krisi horretan elite europarrek duten erantzukizuna ezkutarazten duen diskurtsoaren manipulazioa eta gezurra.

2. EB, europar gobernuak eta trasnazional handiak dira migrazio-exodoaren erantzule: milioika lagun doaz ihesi Europan egindako armez elikatutako gerretatik eta miseriatik, merkataritza-politika neokolonialistek, politika horien ondoriozko desegituraketa sozialak, meatze- eta energia-baliabideen harrapaketak, milaka eta milaka lagun alde egitera behartzen dituzten lur-lapurretak eta klima-aldaketa eragiten duen ingurumen-suntsipenak eragiten duten miseriatik.

Haiena da baita ere exodo horren ondorioen erantzukizuna: Europarako bidaiak luzean milaka lagunek jasan behar izaten dituzten heriotza, espetxeratze, esklabotza eta tratu krudelak, adingabeek, LGTBI pertsonak eta emakumeek jasaten duten indarkeria, horietako asko salerosketa-sareetara bultzatzen baitituzte.

Errefuxiatu eta migratzaileei etengabe urratzen zaizkie giza eskubideak Europan daudenean ere: Indarkeria, diskriminazioa eta zapalkuntza jasaten dute hemen, modu bereziki larrian emakume migratzaileek.

Horregatik exijitzen dugu

- Zorrotz bete dadila Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala, migratzaile guztiek askatasunez mugitzeko aukera izan dezatela eta Europan bizi garen gainerakoen eskubide berberak izan ditzatela.
- Bertan behera gelditu daitezela mugen externalizazioa, europar armagintza eta arma-salmenta, baliabideen harrapaketa eta lurren lapurreta, eta errotik aldatu daitezela egundo politika ekonomiko eta komertzialak
- Giza eskubideekin bat datozen migrazio-politikak egin daitezela, bertan behera gelditu daitezela kanporaketak eta pasabide seguruak ezar daitezela beren herrialdeetatik migratu nahi dutenentzat.

3. Europan kriminalizatu egiten dute errefuxiatu eta migratzaileenganako elkartasuna, hainbat europarrek eta migratzaile-sareek adierazten dutena, bai gobernu autoritario eta muturrekoek bai gobernu kotserbadore eta zentro-ezkerrekoek.

Delitu bihurtu da biziak salbatzea, dena kendu dieten pertsonenganako elkartasuna eta babesa adieraztea, harrera eskaintzea, beraiekin elkarbizitzea, legalki defendatzea eta lurralde berri batean beste aukera bat aurkitzen laguntzea.

Horregatik diogu badela ordua ez soilik kriminalizazio hori geldiarazteko, baina baita pertsona eta erakunde horiek babesteko –toki, nazio, estatu eta nazioarte mailan- eta defendatzen dituzten baloreak gorestekoko.

4. Europako eskuin muturreko indar neofaxistak buru direla, beren estrategia politikoaren elementu nagusi gisa, gero eta gehiago errefusatzen, deportatzen eta jazartzen dituzte bortizki migratzaile eta errefuxiatuak. Eta horren helburuak dira, lehenik, amaiera ematea eskubide eta askatasun berberak dituzten pertsonak osatutako gizarte baten aldeko borroka sozial eta politikoari, duintasunak, errespetuak, elkartasunak, inklusioak, demokraziak eta, azken batean, gizatasunak gidatutako gizarte baten aldeko borrokari.

Bigarrenik, estrategia horren helburua da gizarte autoritario eta patriarkal bat eraikitzea, pertsona ahul, pobretu, baztertu, desberdin, migratzaileenganako gorroto eta bazterketan oinarritua.

Ezinbestekoa da gaur egun bazterkeriazko eta gaitzespeneko politika instituzional arrazista horiei aurre egitea, Europa sozialaren porrotaren, eskubide-murrizketaren eta demokraziaren krisiaren aurrean eskuin muturreko indar neofaxistek eta haien jarraitzaileek proposatzen duten bizimodu ankerra geldiarazteko eta Europan ezartzen ez uzteko.

- Horregatik hartzen dugu konpromisoa elkarrekin bizitzeko arau gisa gorroto eta bazterkeriazko politikak errefusatzeko eta Europako bizimodu gisa gizatasuna eta elkartasuna defendatzeko.

Eta gorroto eta bazterkeriazko politika horiek gure gizarteetatik desagertu arte, migrazioaren arrazoiak desagerrarazi arte eta eskubide guztiak guztiontzat lortu arte – guztiontzat ez diren eskuibideak pribilegioak baitira-,

- Konpromisoa hartzen dugu gogorarazteko denok izan garela beti migratzaileak: gure arbasoek, gure gurasoek migrazioen, erbestearen eta berdintasunik ezaren mina eta miseria jasan zituzten –eta seguraski gure seme-alabek eta ondorengoek ere hala jasango dituzte-.
- Eta, horregatik guztiagatik, konpromisoa hartzen dugu egun egoera hori pairatzen duten pertsonenganako elkartasun aktiboa adierazteko eta pertsona horiek osotara gure gizarteko partaide kotsideratzeko.